


BIZITEGI ERAIKINA
C MAILA**BERGARA 15**

Egilea eta data: Jose Clemente de Osinalde; 1903.

Deskribapena

Eraikinak proportzio orekatuak eta oraindik dekorazio soila ditu, baita erlaitzaren azpian dagoen frisoaren erliebeetan ere. Garai hartako kantoiko ohiko eraikinaren irudia du, begiratokietan eta estalki inklinatuko soluzioan jatorrizko formak mantenduz. Bi zati horiek normalean eraberritu egin dira beste eraikuntza batzuetan. Fatxada bakoitzaren erdian ipinita, goiko lau oinetako balkoi luzeak nabarmentzen dira. Hauek konposizioari horizontaltasuna eta bolumen efektu berezia ematen diote, bertan dauden baranden forjaketetan soluzio diferenteak erabiliz. Eraikinaren abiagunea da merkataritza etxabeetarako beste hautabidea, hau da, erdisotoko baeen gainean etxebizitza gisa ere erabiltzeko bastardeko oina. Harlangaitz horrez eraikia dago, kanpoaldetik hareharri harlanduzko akaberekin eta egurrezko barruko egitura batekin. Jatorrian oin bakoitzean bi etxebizitza ditu, eskailerak, patio komun nagusi bat eta mehelinaren parean dagoen etxebizitzari dagokion beste patio karratu bat.

Babes erregimena.

1.- Babesteko erregimen orokorra.

Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baeen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira. Hori guztia, gaur egungo egoera irizpide horiekin bat ez badator, eta babestu beharreko arkitekturako proiektuarekin bat etortzeko arrazoiengatik mantentzea justifikatzen ez bada.

2.- Berariazko babes erregimena.

A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: ez.

B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak eta begiratokiak.

C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: ez.

D.- Nahitaezko lehengoratzak: ez, hala badagokio, aurreko aurreikuspenak betetzeari loturiko salbuespenen kalterik gabe, erregimen orokor hori arautzen dutenak barne harturik.